

Intxaurrondo

Mus txapelketa auzoan

Hilaren 20 eta 27an mus txapelketa jokatu da Intxaurrondo Hegoa ikastolan. 40tik gora bikotek parte hartuko dute bertan eta hainbat sari banatuko dira.

Intxaurrondo Hegoa Ikastola-ko Gurasoen Elkarteak eta Izei tabernak antolatutako txapelketa hilaren 20 eta 27an jokatu da. Antolatzaileek berrogei bat bikote biltzea espero dute. Gurasoen Elkarteko kide Koldo Sarriesek dioskunez, "ekimenak harrera ona izan du. Adin guztietako parte-hartzaileak izango ditugu, eta gi-

zonezkoak gehiengoa diren arren, zenbait emakumezko ere izena eman dute. Gainera Intxaurrondokoak ezezik beste hainbat auzotako muszaleak ere etorriko zaizkigu".

Banatuko diren sariak ez dira nolana hikoak. Bikote irabaz-

Lehenengo bederatzai sailkatuek saria jasoko dute

leak garaikurra, itsaski-jana eta 180 euroko saria etxeratu-ko ditu. Nolanahi ere, lehenengo bederatzai sailkatuek jasoko dituzte sariak. Koldo Sarriesek aipatu digunez, "ikastolan giro polita izango dugu eta txapelketa ondo joanez gero jarraipena eman nahi diogu datozen urteetan". Txapelketan izena emateko epea hilaren 15era arte zabalik dago. Parte hartu nahi duenak Izei tabernara (Baratzategi pasealekua) joan besterik ez du.



Ibiltariaren Astea

Hilaren 15etik 19ra bitartean Ibiltariaren VIII. Astea egingo da Ipar Haizea elkartearen egoitzan (Bernat Etxepare plazan) "Islamaren lurraldeak" lelopean. Besteak beste, Pekin, Arabia eta Marokori buruzko diapositiba emanaldiak eskainiko dira. Proiektzioen ostean hitzaldiak egingo dira. Emanaldiak 20.00etan hasiko dira.

Sukaldaritza ikastaroa euskaraz

Apirilaren 17tik maiatzaren 22ra bitartean sukaldaritza ikastaroa egingo da euskaraz Larrotxene kultur etxean. Arzak jabetzeko sukaldari nagusi Peio Aranburu izango da irakaslea. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko 943291954 telefono zenbakira hots egin daiteke.

Kantu eta dantza kalejira

laz hasitako ekimenari jarraipena emanez, IZBE auzo elkarteak kantu eta dantza kalejira egingo du apirilaren 19an, ostirala. Kantu eta dantza jira Intxaurrondo Zaharrek kaleetan barrena egingo da. Parte hartu nahi duenak hilaren 15ean, astelehena, 20.00etan Larrotxene kultur etxera jo dezake egun horretan entseiatuko baitira abestiak. Kantu eta dantza kalejiraren ostean afaria egingo da Artzak Ortzok elkartean.



euskararen
donostia
patronalua



Donostia Udala
Patronal de San Sebastián

Antzerkia

- "Bakartxoren zapatila zaharrak" Apirilaren 13an, 18.00etan Intxaurrondo Berri Kutur Etxean
- "Marrubizko printzesa" Apirilaren 13an, 18.00etan Lugaritz Kultur Etxean

Bertsolaritza

- Berto afaria Jexux Mari Irazu eta Jokin Sorozabal Apirilaren 13an, 21.00etan Txalaka elkartean
- Berto saioa Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Unai Iturriaga Apirilaren 14an, 18.30etan Antzoki Zaharrean

Musika

- Ruper Ordorika Apirilaren 18an, 12.30etan Ibaetako Kanpusean

Hitzaldiak

- "Juan Mari Lekuona: kezka antropologoa" Koldo Mitxelena Kulturunean, guztiak 19.30etan
- Apirilaren 15ean: Juan Mari Lekuona argiaren polena (Hizlaria: Patxi Ezkiaga)
- Apirilaren 16an: Minduaren eskolan (Hizlaria: Anjel Lertxundi)
- Apirilaren 17an: Zutaz oroitzean. Mahaingurua: Mirari García de Cortázar, Kirmen Uribe, Pello Otxoteko eta Jose Luis Padrón.
- Apirilaren 18an: Antton Valverde kantaldia